

# ORAIN ETA BETI aldaketaren protagonistak



Genero-berdintasunaren eta  
nesken eta emakumeen ahalduntzearen alde



OINARRI DOKUMENTUA  
2019/2020 Ikasturtea

### 'GARAPENERAKO HEZKUNTZA' (GH) KANPAINA, 2019-2020

#### Garapen Iraunkorrerako 5. Helburua

#### **"Genero-berdintasuna eta emakumeen eta neskatoen ahalduntzea lortzea"**

Dokumentu honen xedea da gure erakundeek 2019-2020 ikasturtean egingo duten 'Garapenerako Hezkuntza' kanpaina informazio, gogoeta eta datuekin hornitzea; Garapen Iraunkorrerako 5. Helburuan (5. GIH) oinarritzen da aurtengo kanpaina: "Genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduntzea lortzea". 5. GIHak gure gaurko mundu honetan emakumeek eta neskek jasaten duten egoera bidegabe garrantzitsuenetako bati konponbidea bilatu nahi dio, eta helburuaren formulazioak hobetu beharreko bi arlo handi bereizten ditu: genero-berdintasuna eta nesken eta emakumeen ahalduntzea.

Arazo hori Milurtekoko Garapen Helburuetan (MGH) landu zen aurretik, eta 2015. urtean ebaluatu zen helburu horien betetze-maila, aurreikusita zegoen moduan. 2015. urtean, MGHak atzera utzi eta GIHei heldu genien, eta emakumeek protagonismo handia izaten jarraitzen dute azken helburu horietan, eta neskatoen kasua ere berariaz jaso da. Garapen Iraunkorrerako Helburuak 17 dira, eta 169 xede zehatz dituzte; xede horiek nahitaez bete behar dituzte 2030. urterako beroriek bultzatzeko konpromisoa hartu duten 193 herrialdeek.

GIHetan, garapenarekin lotuta emakumeek duten arazoa azpimarratu da bereziki, eta konpromisoa sinatu duten herrialde batzuek zehar-gaia izatea nahiago zuten, hots, agendako helburu guztiak hartzea barnean. Azkenean, helburu bakar batean zehaztu zen, 5. GIHan, eta ikasturte honetako Garapenerako Hezkuntzako gure jardueraren oinarri izango da, betiere, GIH guztien zehar-gaia izateari utzi gabe. Izan ere, genero-berdintasunari zuzenean egindako aipamenak irakur ditzakegu hainbat helburu zehatzetan: 2. GIH (2.2 eta 2.3), 3. GIH (3.1), 4. GIH (4.1, 4.3 eta 4.6), 6. GIH (6.2), 8. GIH (8.5 eta 8.8), 11. GIH (11.2 eta 11.7) eta 13. GIH (13.b). Beraz, ikuspegi dual batetik landuko da. Izan ere, gai hauetan adituak diren pertsonen iritzirik orokorraren arabera, genero-berdintasunean aurrera egiteak eta emakumeak eta neskak gero eta gehiago ahalduntzeak oso ondorio positiboak ditu pobrezia ardurako borrokaren arlo guztietan eta giza garapena sustatzeko orduan.



### I. OINARRI TEORIKOA

Gure kanpainaren oinarrizko helburuari helduz, ikus dezagun, lehenik eta behin, nola ulertu behar diren 5. GIHak funtsezko helburu gisa proposatzen dituen 'genero-berdintasunari' eta 'emakumeen eta nesken ahalduzeari' buruzko aipamenak.

#### **SEXUAN OINARRITUTAKO DISKRIMINAZIO OROREN AURKA**

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik, nazioarteko zuzenbidearen oinarrizko dokumentuetan, gero eta modu nabarmenagoan debekatzen da sexuan oinarritutako diskriminazio oro, eta, aldi berean, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren alde egiten da. Hala, bada, San Franciscoko Gutunaren atarikoan (1945), honako hau berretsi zen: "Gizakiaren oinarrizko eskubideetan, duintasunean eta gizakiaren balioan sinestea, bai eta gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasunean ere".

Denborakurreraeginahala, Nazio Batuen Erakundea (NBE) estatu kideek juridikoki bete beharreko eskubideen katalogoa osatzen joan zen, lantzen ari garen arazoarekin lotutako dokumentu garrantzitsuenara iritsi arte; juridikoki loteslea da dokumentu hori, eta 1979an sinatu zen, izenburu honekin: 'Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioa, emakumearen aurkako diskriminazio mota oro desagerrarazteari buruz' (CEDAW). Dokumentu horrek honako hau ezartzen du: "Estatuek neurri egokiak hartu behar dituzte, baita legegintzaren arloan ere, emakumearen erabateko garapena eta aurrerapena bermatzeko esparru guztietan". Gainera, Konbentzioak hauxe ere adierazi zuen: "Ez da diskriminaziotzat hartuko gizonaren eta emakumearen arteko izatezko berdintasuna azkartzera zuzendutako neurri bereziak hartzea". Betebehar generiko horren ondoan, Konbentzioak emakumeek hainbat esparrutan zituzten eskubideak areagotu zituen, hala nola eskubide politikoak eta lanaren, hezkuntzaren, osasunaren eta ekonomiaren arlokoak.

Konbentzio horren babesean eratu zen 'Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea'; organo horrek sexuagatik ez diskriminatzeko eskubidea zaintzea du helburu.

Aurrerago, 'Nazio Batuen Vienako Konferentzian', 1993. urtean egindakoan, honako ideia hau azpimarratu zuten berriro: "Emakumeen eta nesken giza eskubideak giza eskubide unibertsalen parte besterenezinak, integratzaileak eta zatiezinak dira. Eta ideia hori berriro agertuko da gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasunarekin lotutako arazoak aztertzeko azkeneko foro garrantzitsuan, 'Nazio Batuen Erakundearen Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian', Beijingen (Txina) 1995. urtean egin zenean. Konferentzia hartan, argi eta garbi adierazi zen emakumeen arazoan unibertsaltasunarekin eta globaltasunarekin lotuta dagoen adostasuna, eta berdintasunaren eta sexuagatik ez diskriminatzeko helburuaren garrantzia azpimarratu zen, XXI. mendeko gizarteak eraikitzeko faktore saihestezinak diren heinean. Halaber, Konferentzia hark beste mugarri nagusi bat izan zuen, jokatze mekanismo berri bat ekarri zuena: genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna. Hala, bada, generoaren ikuspegia txertatzen hasiko da



politika publikoen diseinuan, exekuzioan eta ebaluazioan, aplikazio-esparrua edo edukia edozein izanik ere.

Ekintza-plataformak bereziki kezkarriak diren 12 eremu identifikatuko ditu, emakumeak aurrera egiteko oztopo nagusi izan daitezkeenak, eta gobernuek eta gizarte zibilak neurri zehatzak hartu beharko dituzte kasu horietan. Hauek dira: emakumea eta pobrezia; hezkuntza eta emakumearen gaikuntza; emakumea eta osasuna; emakumearen aurkako indarkeria; emakumea eta gatazka armatuak; emakumea eta ekonomia; emakumearen parte-hartzea boterean eta erabakiak hartzeko garaian; erakundeen mekanismoak emakumeak aurrera egiteko; emakumeen giza eskubideak; emakumeak eta komunikabideak; emakumea eta ingurumena; neskatoak.

IV. Konferentzia horren aurretik, beste hiru Mundu Konferentzia egin ziren emakumearen gaiaren inguruan: Mexikon (1975), Kopenhagen (1980) eta Nairobin (1985).

Ikus daitekeenez, NBEk garapena sustatzeko eta munduko pobreziaaren aurka borroka egiteko garatutako ekimenen artean, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunarekin eta emakumeen autonomiarekin lotutakoek gero eta toki nabarmenagoa hartzen dute.

### **GENERO-BERDINTASUNA ETA GENERO-EKITATEA**

Sexuan oinarritutako edozein diskriminazioaren kontrako eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko planteamendu horietatik abiatuta, 'genero-berdintasunaren' ideia garatu da, legearen aurrean gizonak eta emakumeak berdinak direla xedatzen duena. Horrek esan nahi du pertsona guztiek, inolako bereizketarik egin gabe, eskubide eta betebeharrak berberak dituztela estatuaren aurrean eta, oro har, gizartearen aurrean.

Genero-berdintasunaren oinarria da historikoki emakumeak diskriminatu egin direla eta gaur egun ere diskriminatzen direla. Beraz, patriarkatuak eragindako desparekotasun edo desoreka historiko hori deuseztatuko duten ekintzak garatu behar dira, gizonen eta emakumeen arteko arrakala ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak eta abar murrizteko. Hala, bada, egiazko genero-berdintasunerako oinarriak jarriko dira.

Emakumeek jasaten dituzten desparekotasunak areagotu egin daitezke, besteak beste, adinaren, arrazaren, jatorri etnikoaren, sexu-orientazioaren, genero-identitatearen eta maila sozioekonomikoaren arabera. LGBTI (lesbianak, gayak, bisexualak, transgeneroak eta intersexualak) pertsonen aurkako diskriminaziozko eta indarkeriazko egoerak, pertsona horien sexu-orientazioaren, genero-identitatearen edota sexu-ezaugarrien ondoriozkoak, maila globalean zabaldua dauden gertaerak dira. Aurrekoa areagotu egiten da, eragindako pertsonak horrelako gertaerak salatze beldur direlako, oro har, salaketak jartzeko kanal fidagarriak ez dagoelako; horrek guztiak indarkeriaren naturalizazio sinbolikoa handitzen du, ikusezina bihurtzen du, eta ez da zigortzen.



Garrantzitsua eta beharrezkoa da **begirada interseksionala** edukitzea generoaren arloko desorekak aztertzen ditugunean, opresio motak lotuta daudela azpimarratzen jartzen baitu.

Genero-berdintasunaren kontzeptio horrek emakumeak eta gizonak berdin tratatzea inplikatu du, esate baterako, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko orduan, jabetzen arloan, kargu publikoetarako edo enpresetako edo erakundeetako lanetarako hautatzeko orduan, gizonek adierazteko duten askatasun bera izateko orduan, etab. Genero-berdintasunak ez du esan nahi gizonak eta emakumeak berdin tratatu behar direnik, baizik eta aukerak eta eskubideek ez dutela pertsonen sexuaren mende egon behar.

Kontzeptu horiek gehiago zehazteko, '**genero-ekitate**' kontzeptua sortu da. Hala, genero-berdintasunaren aurrean, ekitatea emakumei eta gizonei bidezko aukerak ematera bideratzen da nagusiki, baina berdintasunaren kasuan ez bezala, ekitateak gizonen eta emakumeen abiapuntuko egoera desberdinari erantzuten dio batez ere, generoen arteko desparekotasunaren ondorioz, zehazki; beraz, aukerak bidezkoak izatea nahi badugu, berdinak izan behar dute nahitaez. Aukera horiek garatzerakoan, aintzat hartu behar dira beroriek gauzatzen diren askotariko esparruen ezaugarri, testuinguru eta premia bereziak; adibidez, lan-eremuarenak, hezkuntzarenak, osasunaren arlokoak eta arlo ekonomikokoak, kulturalakoak eta sozialekoak, oro har.

Gure erakundearen eta gisa berekoen apustua ekitate-ikuspegia barnean hartuko duen berdintasunarena da.

Generoarekin lotutako estereotipoak eta ekitate ezak nahiz aniztasunaren aurreko (sexu-aniztasuna, genero-aniztasuna eta familia-aniztasuna) aurreiritziak eta diskriminazioak behin betiko deuseztatzeko, nahitaezkoa da aldaketa kultural garrantzitsua gertatzea, eta sektoreen arteko ekintza estrategiko artikulatuen bitartez gauzatu behar da hori.

Genero-berdintasunari buruzko honelako dokumentu batean, beharrezkoa eta nahitaezkoa da feminismoaren mugimenduaren barnean txertatzea; izan ere, mugimendu soziala eta politikoa den heinean, berdintasun hori bilatzen du ikuspegi plural eta heterogeneoetatik. Gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak aldatzeko helburua du mugimendu horrek, gizarte ekitatiboak lortzeko xedez.

### EMAKUMEEN ETA NESKEN AHALDUNTZEA

'Ahalduntze' terminoa, emakumeekin eta neskekin lotuta, 'Emakumeari buruzko Nazio Batuen Erakundearen Laugarren Mundu Konferentzian' erabili zen lehen aldiz, erabakiak hartzeko eta boterea eskuratzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea gero eta handiagoa zela adierazteko. Urteek aurrera egin ahala, termino horren ulermenak bilakaera izan du, eta, gaur egun, adierazpen horrek ere beste dimentsio bat hartzen du barnean: emakumeek indibidualki nahiz taldean hartu duten botere-kontzientzia, emakumeek norbanako gisa berreskuratu duten duintasunarekin estuki



lotuta dagoena; hala, emakumea aske da bere erabakiak hartzeko eta taldean eta lankidetzan lan egiteko, lorpen sozialak, ekonomikoak eta politikoak eskuratzeko xedez.

### SEXUA ETA GENEROA

Pertsona baten sexua pertsona horren gorputzaren ezaugarri naturaletan edo fisiologikoetan oinarrituta ezartzen da; ezaugarri horiek ugaltze-funtzioekin lotuta egoten dira nagusiki, eta batez ere genitalei eta ugaltze-aparatuei dagozkie. Oinarrizko desberdintasun biologiko bat sortzen da hortik pertsonen artean, eta, ikuspegi horretatik eta ikusmolde bitar batetik, pertsonak gizon edo emakume izan daitezke biologikoki, hau da, 'sexu' maskulinokoak edo femeninokoak.

Desberdintasun fisiologiko horretan oinarrituta, gizarteek jarraibide batzuk ezarri dituzte eta pertsonak, gizon ala emakume diren aintzat hartuta, nola sentitu, pentsatu, maitatu, egin... behar duten zehaztu dute.

Planteamendu horiek, askotan, ohartu gabe barneratzen ditugu, familian, eskolan, auzoan, lanean, gizarteko harremanetan... Sexuaren lanketa sozial horri, pertsonen sexu-desberdintasunak oso jokabide zehaztutara bideratzen dituenari, 'genero' esan ohi zaio. Gizarteak pertsonari, gizon edo emakume diren kontuan hartuta, ezartzen dizkien genero-portaera desberdin horiek (rolak) desberdintasun kultural oso markatuak zehazten dituzte, eta gizarte bakoitzaren tradizioaren eta historiaren mende daude. Denborak aurrera egin ahala, desberdintasun horiek desoreka bidegabe bihurtzen dira, eta oso zaila izaten da horiek gainditzea.

Apur bat zehazteko, emakumeak ugalketaren eta maitasunaren planoari lotzen zaizkio kulturalki, eta, beraz, etxe barrura mugatzen ditu horrek, seme-alaben eta familiako beste pertsona batzuen zainketaekin lotutako jardueretara. Gizonak, bestalde, arrazionaltasunarekin eta indar fisikoarekin lotzen dira sozialki, eta espazio publikora eramaten ditu horrek, familia mantentzeko lan egiten dutenen rolera.

Gizarteak emakumei eta gizoni esleitu dien misio desberdin horren ondorioek desoreka argiak sortu dituzte gizonak eta emakumeak ikasteko, garatzeko eta autonomiaz jokatzeko orduan eskura dituzten aukeretan. Gizoni esleitutako zeregina, oro har, emakumeena baino askoz ere baliotsuagoa da; emakumeak gizarteari egiten dioten ekarpena gutxietsi egin da, eta, horren ondorioz, eskubideak galdu dituzte, baztertu egin dituzte askotan, baita zuzenean mespretxatu ere, eta gizonen eta emakumeen artean boterean eta nagusitasunean oinarritutako harreman kaltegarria eta bidegabea sortu da. Genero-rol horiek imajinario kolektiboan indar handiz barneratzen diren eta genero-desoreken oinarri diren estereotipo batzuk sortzen dituzte.



### Zergatik da garrantzitsua genero-berdintasuna -ekitatezko ikuspegiarekin- eta emakumeen eta nesken ahalduntzea?

Emakumeek eta neskek munduko biztanleriaren erdia ordezkatzeko dute, eta, beraz, biztanleriaren ahalmenaren erdia. Hala ere, generoen arteko desorekak bere horretan eusten dio mundu osoan, eta gizaratearen aurrerapena geldiarazten du. Izan ere, emakumeen eta nesken ahalduntzea funtsezkoa da hazkunde ekonomikoa sustatzeko eta gizaratearen garapena bultzatzeko. Hala ere, 2014an, 143 herrialdek konstituzioetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuta bazuten ere, beste 52 herrialdek ez zuten oraindik konpromiso garrantzitsu hori hartu.

Jaiotzen diren unetik bertatik egin behar izaten diete aurre neskek desorekei, eta bizitza osoan iraun dezakete. Gainera, bizi garen tokian bizi garela, genero-berdintasuna oinarritzko giza eskubidea da. Funtsezkoa da genero-berdintasuna sustatzea gizarate osasuntsu baten esparru guztietan: haurren pobreziaren murrizketan, osasunaren sustapenean, hezkuntzan, babesean eta ongizatean.

Arazo horren aurrean kontzientziatu egin behar dugu, gure egunerokoan emakumeen diskriminazioa saihesteko ahalegina egiten saiatu behar dugu, eta genero-berdintasunaren aurkako ohitura kulturalak geldiarazi nahi dituzten kanpainei gure askotariko ekarpenak egin behar dizkiegu; horrez gain, emakumeen eskubideak mugatzen dituzten eta beren potentzialtasunak garatzea eragozten dieten legeak aldatu behar ditugu.

### Zergatik da garrantzitsua gizonak eta mutikoak aliatu estrategikotzat hartzea?

Genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neskatok guztiak ahalduntzea guztioi dagokigun zeregina da. Genero-estereotipoak eta maskulinitate hegemonikoak aldatzeak ondorio onuragarriak ditu emakume eta neskenentzat nahiz gizon eta mutilentzat, eta funtsezkoa da benetako garapen iraunkorra lortzeko.

Indarkeriaren erabilerarekin erlazionatu diren maskulinitate tradizionalarekin lotutako ezaugarriak askotarikoak dira. Besteak beste, honako hauek: "gizentasuna" erakustea edo babestea; boterearen eta kontrolaren erabileraren legimitatea; suminaldiaren edo frustrazioaren erabilera desagokia; indarkeria justifikatzen duten usteak legitimatzea; emakumeen gorputzaren gaineko jabetza-sentimendua; emakumeak errudun egitea; emakumeak objektu sexual gisa ikustea; eta gizonen desira kontrolaezina dela uste izatea.

Indarkeriarik gabeko maskulinitaterako eraldaketan aurrera egiteko, hitzetik ekintzara igaro behar dugu. Beharrezkoa da gizonen maskulinitatearen arauak ikasten, bizi izaten eta gauzatzen dituzten moduak aldatzea, bai eta ikuspegi hori txertatzea emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari buruzko estatuko legeen eta planen lanketan ere.

Modu berean, prebentziorako estrategiak sortu beharko genituzke hezkuntzaren esparruan ikasleekin, irakasleekin eta gizonekin, maskulinitate berrien sustatzailerik bihurtzeko eskola. Horrez gain, gurasoen erantzukizun partekatua sustatu eta bultzatu beharko genuke haurren zainketan, bai eta maskulinitate positiboak ere, etxeko indarkeriaren eta haurren kontrako indarkeriaren arriskua murrizteko estrategia gisa.





## II. EGIN DIEZAI OGUN LANARI

### GENERO-ARRAKALAK

“**Genero-arrakala**” deritzegizonen eta emakumeen artean berenoinarrizko eskubideak gauzatzean gertatzen diren desorekei, honako hauekin lotuta: parte-hartzea, aukeren eskuragarritasuna, boterea, eragina, soldata, etekinak, kontrola, baliabideen erabilera eta desoreka dakarren beste edozein egoera bidegabe. Genero-arrakalek gizarteetan barneratuta dagoen generoaren kontzepzio tradizionalan dute oinarria; kontzepzio hori gizartearen eguneroko ohituretaratik igaro da, eta, askotan, zenbait estatutako legedietan ere jaso dira modu zehatzetan. Genero-arrakalak aurki ditzakegu emakumeen eta gizonen zereginekin lotutako esparru guztietan: ekonomia, industria, kultura, osasuna, hezkuntza, gizarteak, legediak, etab.; hala ere, esparru bakoitzean adierazpen desberdinak izango ditu, arloaren ezaugarri zehatzak arabera.

Ikus dezagun, ondoren, konponbidea lehenbailehen behar duten genero-arrakala samingarrientako batzuk, aintzat hartuta, gainera, 5. GIHarekin lotutako helburuak eta xedeak ondoren adierazitako genero-arrakala gehienak deuseztatzearekin erlazionatuta daudela.

- 1. Generoagatik diskriminazioa.** — Generoan oinarrituta, pertsonak desberdin tratatzen direnean gertatzen da, hau da, gizonek emakumeek baino onura gehiago dituztenean. Esate baterako, gizoni eta emakumei lan-baldintza desberdinak eta lanean lanpostu hobea lortzeko aukera desberdinak eskaintzen dizkieten enpresak (kristalezko sabaia); lan bera egiteagatik emakumeek gizonek baino soldata txikiagoa jasotzen duten enpresak (soldata-arrakala); maileguen kasuan, gizoni emakumei baino baldintza hobek eskaintzen zaizkienean, estereotipo bidegabe eta sexisten ondorioz, etab. Genero-diskriminazioa toki guztietan gertatzen da: kiroletan, hezkuntza-erakundeetan, lan-esparruetan, erakunde politikoetan, pertsonen etxebizitza bat edo beste produktu bat bilatzen dutenean, etab.

Historikoki, duela gutxi arte, gizarte gehienetan emakumeak ez du presentziarik eta tokirik izan ia lan-esparruan, kiroletan, hezkuntzan, administrazioan...; etxean gelditu behar zuen, seme-alabak zaintzen eta etxeko lanak egiten. Gizonen aldeko faboritismo tradizional horren hondar-eragina eta emakumeen kontrako tratamendu bidegabea dira egungo genero-diskriminazioaren arrazoi nagusiak.

Genero-diskriminazioa bidegabea da beti, eta, gainera, ondorio negatiboak ditu bizitzaren arlo guztietan (publikoa zein pribatua), lanean giro txarra sortzen baitu eta jazarpena eta indarkeria sustatzen baititu neurri handiagoan zein txikiagoan.

5. GIHaren 5.1 xedeak haxe bilatzen du: “Emakume eta neska guztien kontrako diskriminazio modu guztiak desagerraraztea mundu osoan”. Ildo beretik, GIH beraren 5.c xedeak haxe bultzatzen du: “Politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea estatuen aldetik, generoen arteko berdintasuna eta emakume eta neskatuen ahalduntzea sustatzeko maila guztietan”. Jarduketa-ildo horrekin jarraituz, genero-diskriminazioak legez kanpokoa izan behar du, eta





legediek irtenbide eraginkorrak bilatu behar dituzte portaera bidegabe horien biktimentzat, bai lantokian bai ikastetxeetan eta finantza-erakundeetan edo beste esparru batzuetan. Modu berean, lan-eremu berean lan bera egiten duten gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu behar da, bai soldatari dagokionez eta bai baldintzei, eskubideei, betebeharrei eta laneko onurei dagokienez ere. Aniztasun- eta inklusio-politikek genero-diskriminazioari irtenbidea bilatzen laguntzen dute baita ere, pertsonen artean berdintasuna sustatuz.

- 2. Genero-arrakala hezkuntzan.** Azkeneko estatistiken arabera, garatzen ari diren herrialdeen erdiak baino gehiagok generoen arteko parekotasuna lortu dute jada Lehen Hezkuntzan; hala ere, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Asia mendebaldeko neskatoen kasuan, zailtasun handiak dituzte gaur egun ere Lehen Hezkuntzan nahiz Bigarren Hezkuntzan matrikulatzeko. Egoera hori bereziki kezagarria da landa-eremuetan, oso berezita baldin badaude batez ere; inguru horietan, oro har, neska baino mutiko gehiago joaten dira Lehen Hezkuntzara eta Bigarren Hezkuntzara. Bestalde, familiek seme-alaba guztiak eskolara bidaltzeko modurik ez dutenean, mutikoak aukeratzen dituzte, eta neskak etxean gelditu ohi dira, amari laguntzen. Ondoren, Lehen Hezkuntza amaitutakoan, landa-inguruan bizi diren nesketatik erdiak soilik jarraituko du Bigarren Hezkuntzan. Alde hori are handiagoa da ohiko hizkuntza eskolako hizkuntza ofiziala ez denean. Hori dela eta, herrialde askotan, emakume helduen ehuneko handi batek ez daki ez irakurtzen eta ez idazten, batez ere landa-inguruetan. Neskatoen hezkuntza ezaren kostua oso altua da. Bigarren Hezkuntzan eskuratzen dira hezkuntzaren onura handienak. (Txostena: Neskatoen hezkuntza ezaren kostua. 2018)

Egoera horren desabantailak berehala nabarmenduko dira emakumeengan, gaitasun faltaren ondorioz lan-merkatuan sartzeko aukerak galduko baitituzte. Hezkuntzarako eskubideak beste giza eskubide batzuek gozatzeko aukerak areagotzen ditu baita ere, osasunerako eskubidea eta arlo publikoan parte hartzeko eskubidea barne.

Gaur egun, kalkulatu da 6 urtetik 17 urtera arteko 132 milioi neska ez direla eskolara joaten. Saharaz hegoaldeko Afrikan, neskatoen % 40k soilik amaitzen du Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa.

Hezkuntzaren arloan gertatzen den genero-arrakala azkar murrizteko aukera izateko, premia handiagoa duen helburu bat nabarmentzen da: neskatoen zein mutikoen eskolatzeko unibertsala sustatzea, sexuagatiko diskriminazio oro baztertuz, bereziki landa-inguruetan.

Eskolara joateko aukera izateaz gain, garrantzitsua da hezkuntza-ereduari buruz gogoeta egitea, sistema patriarkalaren sexismoa eta androzentrismoa zabal baitaiteke eskolan, eta, beraz, generoen arteko desoreka betikotu egingo da; izan ere, eskoletan ere genero-indarkeriazko egoerak gertatzen dira. Horregatik, funtsezkoa da baterako hezkuntzatik landuko diren hezkuntza-eredu ez sexistak erabiltzea. Helburua gizartea aldatzea da, pertsona guztiok berdintasunezko eta ekitatezko harremanetan bizitzeko aukera izan dezagun.



5. GIHak hezkuntzarekin lotutako xede zehatzak proposatzen ez dituen arren, 4. GIHak, kalitatezko hezkuntza sustatzen duenak, genero-berdintasunarekin lotura zuzena duten lau xede eskaintzen ditu gutxienez. Lau xede zehatz horiek “ziurtatu” aditzarekin hasten dira: “ziurtatzea haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza emaitza egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu” (4.1); “ziurtatzea gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela, unibertsitate irakaskuntza barne” (4.3); eta “ziurtatzea gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat, bai gizonak bai emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikako oinarrizko ezagutzak dituztela” (4.6).

- 3. Genero-indarkeria.** —Emakumeek, emakume izate hutsagatik, indarkeriazko hainbat egoera jasateko arriskua dute. Adibidez, bortxatutako edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen kopurua gero eta handiagoa da. NBE Emakumeak erakundearen arabera eta OMEren arabera, 2017an, hiru emakumetatik batek (% 35) indarkeria fisikoa edota sexu-indarkeria jasan dugu gure bikotekideengandik, edo hirugarren batek eragindako sexu-indarkeria jasan dugu inoiz gure bizitzan.

Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak (CEPAL) emandako azken datuen arabera, emakumeek munduan jasaten dugun indarkeria matxistaren pandemiaren beste erakusgarri bat da hori: gutxienez 2.795 emakume feminizidioaren biktima izan ziren Latinoamerikako eta Karibeko 23 herrialdetan 2017. urtean. Fenomenoa oso zabala da El Salvadorren, feminizidioen tasa 100.000 emakumeko 10,2koa izan baitzen 2017an; Hondurasen, tasa hori 5,8koa izan zen 2016an. Venezuelak, Panamak eta Peruk soilik erregistratu zituzten 1,0tik beherako tasak eskualde horretan.

Gaur egun, herrialdeen bi herenek (140) zigortu egiten dute, baina 40 herrialdetan baino gehiagotan ez da zigorrik ezartzen. Familiaren esparruan emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako legerik ez duten herrialde gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikan -herrialdeen erdiek baino gutxiagok dute gai horrekin lotutako legeria-, Ekialde Hurbilean eta Afrika iparraldean -lautik batek- daude, Mundu Bankuaren arabera.

Datuek adierazten dutenez, emakumeek indarkeriaren aurrean duten zaurgarritasuna areagotu egin daiteke zenbait ezaugarri edo egoeraren ondorioz: emakumeen sexu-orientazioa, ahalmen urritasuna, etnia eta testuinguruarekin lotutako zenbait faktore, hala nola krisi humanitarioak, gatazka-egoerak eta gatazken ondorengo egoerak barne.

‘Genero-indarkeriatzat’ jotzen da emakumearen kontrako kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala, psikologikoa, emozionala, ekonomikoa edo lan-arloarekin edo ondarearekin lotutakoa; hertsatzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere hor sartzen da, bai eta egintza horiek gauzatzeko mehatxua ere, eremu publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnean.

Azalpen horietatik abiatuta, ulertzen da ‘indarkeria’ ez dela soilik emakume batek bere generoaren ondorioz jasan behar duen tratu txar fisikoa edo ahozkoa. Beste indarkeria modu batzuk ere hartu behar dira aintzat, ezkuuagokoak eta gutxi aipatzen direnak -‘mikroindarkeria’ esaten zaie batzuetan-, eta eremu pribatuagoetan betikotu egiten dira maiz indarkeria horiek. Beste batzuetan,



objektiboki indarkeriazkoak diren portaerak behin eta berriz errepika daitezke gizartean, eta gizartean onartutako jokaeratzat har daitezke, 'natural' edo 'normaltzat'.

Horrekin lotuta, genero-indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeari eta horien kontra borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena aipatu behar da, Istanbulgo Hitzarmena izenez ezagunagoa dena (gai honi buruzko Europako lehenengo tresna loteslea). 2011n aurkeztu zen hiri horretan, eta Espainiak 2014an berretsi zuen. Espainiako legedia gainditzen du (1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren arkakoa), emakume biktimak babesteko nazioarteko markoa eskaintzen baitu, eta sexu-indarkeria, laneko indarkeria, indarkeria instituzionala eta bikotekideak edo bikotekide ohiak eragin ez dituen beste indarkeria mota batzuk hartzen baititu barnean; horrez gain, lege horretako 18.4 artikulua ezartzen du ez duela salaketa judizial baten menpe egon behar biktimei zuzendutako arreta juridikoak, psikologikoak eta sozialak.

Pertsonen trafikoa -laneko esplotazioa eta sexu-esplotazioa- da gehienbat (% 70) emakumeei eragiten dien beste indarkeria mota bat, emakume helduei, nerabeei edo neskatoei. Kalkuluen arabera, munduan 21 milioi pertsona inguru dira pertsonen trafikoaren biktima (Pertsonen Trafikoari buruzko Munduko Txostena, 2016). Errealitate horrek ez du mugarik; izan ere, herrialde guztiei eragiten die, biktimen jatorri-herrialde direlako nahiz haien igarobide edo helmuga direlako. Espainia biktimen helmuga horietako bat da.

Esparru arau-emaitzari dagokionez, 2003. urtean onartu zen nazioz haraindiko delinkuentzia antolatuen aurkako Nazio Batuen Konbentzioa, bai eta pertsonen, eta, bereziki, emakumeen eta haurren salerosketa prebenitu, zigortu eta zehatzeko protokoloa ere.

5. GIHK, 5.2 xedean, hauxe jasotzen du: "Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria-modu guztiak ezabatzea eremu publikoan nahiz pribatuan, trafikoa, sexu-salerosketa eta beste esplotazio-modu batzuk barne".

4. **Ezkontza onartezinak.** — Haurren arteko ezkontzak edo ezkontza goiztiarrak nabarmentzen dira, hau da, ezkontzaren batek gutxienez 18 urte bete ez dituen kasuak; bestalde, nahitaezko edo behartutako ezkontzak ere hemen txertatzen dira.
  - **Haurren arteko ezkontza edo ezkontza goiztiarra:** neskatoei mutikoei baino gehiago eragiten die, eta nesken aurkako sexu-abusuaren eta esplotazioaren modu hedatuena da. Gaur egun, mundu osoko 700 milioi emakume baino gehiago 18 urte bete aurretik ezkondu dira.

Neskatoen ezkontza goiztiarra maizago gertatzen da Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Asiako hegoaldean; Nigerren, adibidez, 18 urte bete aurretik ezkondu ziren unean honetan 20 urtetik 24 urtera dituzten emakumeen % 77, eta Bangladeshen, berriz, % 65ekoa da kopuru hori. Munduan, 18 urtez azpiko 15 milioi neskato inguru ezkontzen dira urtero, hau da, 40.000 eguneko, batez beste. Haurren arteko ezkontzen kopuruak behera egin du, batez ere hamabost urtetik beherako neskatoenak, baina ez nahi bezain azkar. Bestalde, 15 urtetik 19 urtera bitarteko 14 milioi nerabe



inguru erditzen dira urtero. Adin-tarte horretako amek 20 urte dituztenak baino arrisku handiagoa dute haurdunaldian edo erditzeko unean hiltzeko.

Haurren arteko ezkontzaren ondorio negatiboen artean, besteak beste, honako hauek aipatu behar dira: familiarengandik eta adiskideengandik bereiztea, adin bereko pertsonekin erlazionatzeko eta jarduera komunitarioetan parte hartzeko askatasunik ez izatea eta formazioa jasotzeko aukerak murriztea. Haurren arteko ezkontzak beste ondorio batzuk ere izan ditzake: behartutako lanak, esklabotasuna, prostituzioa eta biktimen kontrako indarkeria. Sexu-harremanak saihestu ezin dituztenez eta preserbatiboa erabiltzea eskatu ezin dutenez, adin txikiko andregaiak osasun-arrisku handiak pairatzen dituzte, hala nola haurdunaldi goiztiarrak, sexu-transmisiozko infekzioak eta hiesa.

Gurasoek premia ekonomikoak dituztelako onartzen dituzte batzuetan ezkontza horiek, edo alabak babesteko neurri gisa; izan ere, pentsatzen dute ezkontzaren bitartez alabek gizon baten babesa izango dutela, sexu-erasoen aurka babestuta egongo direla edo ezkondu gabeko haurdunaldiak saihestuko dituztela eta alaben emankortasun-urteak luzatuko dituztela eta senarraren etxean hurbiletik kontrolatuta egongo direla.

- **Nahitaezko edo behartutako ezkontza:** bikotekideetako baten borondatearen kontra eta behartuta egiten den ezkontza deskribatzeko erabiltzen da termino hau. Ez da nahastu behar hitzartutako ezkontzarekin; kasu horretan, bi ezkontideek baimena ematen diete gurasoei edo hirugarren bati senarra edo emaztea hautatzeko

Behartutako ezkontzaren ohitura oso hedatuta egon zen Europako goi-mailako klaseen artean 1900. urtera arte, eta gaur egun oraindik hedatuta dago Asiako hegoaldean, Erdialdeko Ekialdean eta Afrikan. Eremu geografiko horietako etorkinek ere ohitura horri eutsi diote kasu batzuetan Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan ezarritako komunitateetan, herrialde horietako ezkontza zibilari dagozkion legeen aurka joan arren, pertsona bakoitzaren borondatea errespetatzen baita herrialde horietan.

Nahitaezko ezkontza giza eskubideak urratzeko modu bat da, pertsonen autonomia- eta askatasun-printzipioak urratzen baititu. Ezkontza bat ezkontideen adostasun erabateko eta askearen bidez soilik gauza daiteke.

Gainera, behartutako ezkontzak pobrezia eta babesgabetasun-ziklo arriskutsu batean txerta ditzake pertsonak, eta, bereziki, neskak. Emakume horietako gehienek indarkeria, abusua, behartutako sexu-harremanak eta senarren nagusitasun despota jasan behar izaten dituzte. Beste kasu batzuetan, emazteek bizimodu sexual eta ugalketa pobrea eta txarra dute. Bestalde, ezkontzera behartutako emakume gazteek hiesa harrapatzeko aukera handiagoak dituzte, eta haien osasunak, oro har, arrisku handiagoak ditu.

Ezkontzera behartutako pertsona gehienek (neskatoak eta emakumeak) hezkuntza-gabeziak dituzte, eta alfabetatu gabeak izan ohi dira, ezkondu aurretik eskolara joateari uzten baitiote.



5. GIHak, 5.3 xedean, honako hau jasotzen du: "Haurren ezkontza goiztiarra eta behartua desagerraraztea".

- 5. Emakumeen genitalen mutilazioa (EGM).**– Izendapen horren atzean, emakumeen kanpo genitalen erauzte partziala edo oso eragiten duten prozedura guztiak daude, bai eta arrazoi medikoengatik egiten ez diren emakumeen organo genitalen beste lesio batzuk ere. Kasu gehienetan, erdaintzeak egiten dituzten pertsonak egiten dute emakumeen genitalen mutilazioa, eta pertsona horiek beste zeregin batzuk izaten dituzte beren komunitateetan, hala nola erditzeko laguntzea. EGMri lotutako prozedurek ez diote inolako onurarik egiten horiek pairatzen dituzten emakumeen eta neskatuen osasunari; aitzitik, hemorragia larriak eta gernu-aparatuko arazoak eragin ditzakete unean bertan. Aurrerago, beste arazo batzuk ere eragin ditzakete: kisteak, infekzioak, konplikazioak erditzeko unean eta jaioberrira hiltzeko arrisku handiagoa.

Emakumeen genitalen mutilazioa adingabeei egiten zaie gehienetan, eta emakumeen eta neskatuen giza eskubideen bortxaketatzat jotzen da nazioartean; hala, oso sustraituta dagoen sexuen arteko desoreka islatzen du, eta emakumea diskriminatze modu bat da. Emakumeen genitalen mutilazioak, halaber, osasunerako, segurtasunerako eta osotasun fisikorako duten eskubideak ere urratzen ditu, bai eta torturak eta tratu krudelak, ankerrak edo apalgarriak ez jasateko eskubidea eta bizitzarako eskubidea ere, zenbait kasutan prozedurak heriotza baitakarkie.

Emakumeen genitalak mutilatzeko prozedurak haurtzaroan garatzen dira gehienetan, edoskitzaroaren eta nerabezaroaren arteko uneren batean; oso gutxitan gertatzen da helduaroan. Urtero, hiru milioi neskek baino gehiagok dute EGM jasateko arriskua. Afrikako mendebaldeko, ekialdeko eta ipar-ekialdeko eskualdeetan ohikoagoak dira praktika horiek, bai eta Ekialde Ertaineko eta Asiako zenbait herrialdeetan ere, eta eremu horietatik joandako migratzaileek iparralde globalean ere eusten diote ohitura horri. Beraz, EGM mundu-mailako arazoa da.

Gaur egun bizirik dauden 200 milioi emakumek eta neskatok baino gehiagok jasan dute mutilazioa prozedura hori garatzen den 30 herrialdeetan. 2000. urte ingurutik, % 24 murriztu da EGM. Hala ere, prebalentzia handia da oraindik ere kopuru adierazgarriak dituzten zenbait herrialdeetan: 2015 inguruan egindako inkesten datuen arabera, 15 urtetik 19 urtera bitarteko hiru neskatatik batek baino gehiagok mutilazioa jasan zuten. Horren aurrean, 2000. urteko kopuruen arabera, 2 neskatatik batek jasan zuen mutilazioa.

Azken garaian, mutilazioaren praktika murriztu egin da herrialde gehienetan, eta gero eta handiagoa da baita ere eragindako komunitateetan ohitura hori deuseztatzearen alde agertzen diren emakumeen eta gizonen kopurua.

Emakumeen genitalak mutilatzeko arrazoiak aldatu egiten dira eskualde batetik bestera eta garai batetik bestera, baina faktore soziokulturalen nahasketa bati erantzuten diote beti. Askotan, gizarteak presio handia egiten du neskatilak mutilatzeko, eta, beraz, gizartean onartuak izateko premia eta komunitateak baztertzeko beldurra motibazio boteretsuak dira ohitura hori betikotzeko. Zenbait komunitateetan, EGM ohitura unibertsala da ia, eta oso



arraroa izaten da horren aurka egitea. EGM neskatilaren hazkuntzaren funtsezko zatitzat jotzen dute askotan, eta helduarorako eta ezkontzeko prestatzeko modu bat. Beste batzuetan, emakumeen birjintasuna ziurtatzeko jokutzen da, emakumearen libidoa murrizten duela eta ezkontzatik kanpoko harremanen tentazioari aurre egiten laguntzen diola uste baitute; horrez gain, harremanak edukiz sentituko lukeen minaren ondorioz emakumeak ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak izateko aukera baztertuko lukeela uste dute. Ildo beretik, askok uste dute emakumeek senarra aurkitzeko aukera handiagoak dituztela mutilatuz gero. Askotan, mutilazioa egiten dutenek uste dute erlijioak ere babesten dituela, halakorik egitea agintzen duen idatzi erlijiosorik ez dagoen arren. Botere eta autoritatearekin lotutako egiturek, komunitateetako buruzagiek eta buruzagi erlijiosoek, erdaintzuntza egiten dutenek nahiz osasunaren esparruko ordezkari batzuek ohitura horri eusten laguntzen dute zenbait kasutan.

1997. urtetik, gutxienez, ahalegin handiak egin dira EGMren aurka borroka egiteko, bai ikerketaren bitartez, komunitateekin lan eginez eta politika publikoak aldatuz, baina, ohitura izugarri horren kontrako borrokan egindako aurrerapenak interesgarriak diren arren, oraindik asko falta zaigu ohitura guztiz ezabatzeke.

Horregatik, 5. GIHak, 5.3 xedean, emakumeen genitalen mutilazioa guztiz deuseztatzeak duen garrantzia azpimarratzen du.

- 6. Genero-arrakalak lan-eremuan.**— 83 herrialdetan egindako inkesten datuen arabera, emakumeen kasuan, diruz ordaindu gabeko zainketetara eta etxeko lanetara zuzendutako denboraren batez bestekoa gizonenaren hirukoitza da gutxienez; beraz, gizonak askoz ere denbora gehiago dute etxetik kanpo lan egiteko eta diru-sarrerak lortzeko edo beste zeregin batzuk egiteko, hala nola ikasi eta gaitu, politikan aritu, kirola egin, irakurri edo, besterik gabe, aisialdiaz gozatu. Aurrekoaz gain, aintzat hartzen badugu gero eta gehiago direla etxeko buru bakar gisa emakume bat duten etxeak, emakumeek aurre egin behar dioten gainkargaren koadro orokor oso errealista izango dugu.

Emakumeek lana lortzeko aukera gutxiago dute, eta, batez beste, gizonak baino % 24 gutxiago irabazten dute mundu osoan lan-merkatuan. Askotan, emakumeek lortzen dituzten enpleguak gaizki ordainduta daude, edo lan-baldintza eskasak dituzte. Hori dela eta, askoz ere handiagoa da muturreko pobrezia-egoeran bizi diren emakumeen kopurua.

Emakumeek lan-gainkarga jasaten dute, gizonak baino ordu gehiago lan egiten baitute egunero; izan ere, etxean lan egiten dute (etxeko lanak eginez nahiz etxean bizi diren pertsonak zainduz), etxetik kanpo ere lan egiten dute (ordaindutako lana), eta, askotan, aurreko zereginenez gain, komunitaterako ere lan egiten dute (jangela sozialetan, puerikultura komunitarioan, osasun-sustatzaile moduan, indarkeriari aurrea hartzeko zereginetan, komunitateko buruzagi gisa, etab.). Hala ere, emakumeen lana gutxitan aitortzen eta balioesten da.

Zenbait jarduera ekonomikotan, emakumeen baldintzak oso txarrak dira; esate baterako, kontserba-industriako langileen kasuan, nekazaritzako industriako langileen kasuan eta sektore





informalean edo etxeko langile gisa lan egiten dutenen kasuan. Lan-eremu horietako askotan, emakume ugari ez dute osasun-asegururik, oporraldirik edo legeak eman beharko lizkiekeen bestelako onurarik.

Gai hauetan adituak diren pertsona gehienek ustez, emakumeen erabateko parte-hartzeak lan-ondarreak ehunekoak erantsiko lizkieke hazkunde nazionalen tasa gehienek.

Lan-esparruko genero-arrakalak murrizteko asmoz, 5. GIHaren 5.4 xedeak honako hau lortu nahi du: "Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta balioestea, zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera".

- 7. Emakumeek jabetzetan, finantzetan eta gizarteko beste ondasun batzuetan duten sarbidea.** — Lurrak, jabetza, etxebizitza eta beste zerbitzu sozial batzuk eskuratzeko eskubideak funtsezkoak dira genero-berdintasunerako eta emakumeen ongizaterako. Eskubide horiek faktore erabakigarriak dira bizi-baldintza duinak ziurtatzeko emakumei, landa-inguruetatik ekonomietan bereziki, eta funtsezkoak dira emakumeen eta haien seme-alaben eguneroko biziraupenerako, bai eta haien segurtasun fisiko eta ekonomikorako ere. Hala ere, emakume horientzat eta beren kargura dituzten familientzat eskubide horiek oso garrantzitsuak diren arren, emakumeek ez dute oraindik segurtasunik ondasunak eskuratzeko orduan.

Lurraren kasuan, emakumeek beren jabetza edota horren administrazio praktikoa eskuratzeko duten zailtasuna aldatu egiten da kontinenteen arabera. Asiaren kasuan, emakumeek duten arazo nagusia oinordetzako legeak dira. Lege horiek gizonei ematen diete lehentasuna emakumeen aurrean, emakume batek lur bat oinordetzan jasotzen bada, haren senarra arduratzen baita lur hori administrazteaz. Afrikan, jabetzak gizonek izenean daude, eta lur horiek gizonek jasotzen dituzte oinordetzan. Emakumea alargun gelditzen bada, ez zaie ziurtatzen lurraekin gelditzeko eskubidea. Latinoamerikan, senarrak emaztea ordezkatzeko du legezko auzigaietan.

Gainera, askotan, emakumeek ezin dute parte hartu lurraekin, beste jabetza batzuekin edo etxebizitzekin lotutako erabakietan, gai horiek modu larrian eta zuzenean eragin arren. Administrazio ofizialaren genero-aurreiritziak emakumeak baztertzen dituzte baita ere lurraekin eta etxebizitzekin lotutako politikei eta programei buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Askotariko diskriminazioak pairatzen dituzten emakumeek -esate baterako, adineko emakumeak, ezintasunen bat dutenak, hiesarekin bizi direnak edo gutxiengoaren komunitateetako edo talde indigenetako kide direnak- oztupo gehiago izaten dituzte lurra eta jabetzak eskuratzeko. Adibidez, alargun gelditutako emakumeak -adineko emakumeak izaten dira askotan- beren senarrak hiltzeaz akusatzen dituzte askotan, hiesa kutsatu dietelako, eta ahaideek argudio hori erabiltzen dute emakume horiei duten guztia kentzeko eta etxetik bidaltzeko. Horrelako kasuetan, emakumeek baliabide produktibo garrantzitsuak eskuratzeko aukera galtzen dute, osasun-laguntza behar dutela kontuan hartuta.





Bestalde, emakumeek zailtasun handiak dituzte finantzetan parte hartzeko planetako eremu askotan. Zenbait herrialdetan, emakumeek aitari, anaiari edo senarrari eskatu behar izaten diote kontu korrante bat irekitzeko baimena. Hala, esate baterako, Frantzia emakumeen % 97k bankuko kontu bat erabiltzeko aukera dute, eta Txaden, aldiz, emakumeek % 7k soilik dute kontu bat bankuan, eta gizonen % 40k. Finantzetan parte hartzeko orduan dagoen desoreka hori oztopo da emakume askok jasaten duten pobreziatik irteteko; izan ere, aurrezkirik gabe ezin dute plangintzarik egin, eta ezin diete ezusteko egoerei aurre egin. Gainera, kredituak eskuratzeko aukerarik ez badute, ezin dute uztetan edo negozio txikietan inbertitu, diru-sarrerak handiagoak lortzeko aukera itxiz.

Pobrezia arrisku asko ditu barnean, eta, diskriminazioaren ondorioz, emakumeek arrisku horiei aurre egiteko gaitasun txikiagoa dute; izan ere, atzerapen ekonomikoen garaian, emakume pobreak aurrezkiak izateko eta izandako galerei aurre egiteko aukera erreal gutxiago dute.

Emakumeek ekarpen esanguratsuak egiten dituzte egunero, familia diru-sarrerak eramanez, soldatapeko langile gisa, enpresak sortuz edo familia eta adineko senideak zainduz.

Hala ere, gerta daiteke emakume nekazari baten uzta, adibidez, gizon nekazari batek lortzen duena baino txikiagoa izatea, emakumeak ezin dituelako haziak lortu, ez diotelako mailegurik ematen edo ezin dituelako teknologia eta bestelako zerbitzuak eskuratu.

Emakume nekazari gizonen ematen zaizkien aukera berak emanez gero, egoera bidegabe bati konponbidea bilatzeaz gain, gose kronikoa jasaten duten pertsonen kopurua 100 milioitik 150 milioira bitartean murriztuko litzateke (guztien % 12 eta % 18 artean). Bestalde, emakumea bada etxeko diru-sarreraren ekarpena egiten duena, bere haurrek bizirauteko duten probabilitatea 20 aldiz biderkatzen da, emakumeek gehiago inbertitzen dutelako haurren elikaduran, osasunean eta hezkuntzan.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak pertsona orok jabetza bat eskuratzeko duen eskubidea ezartzen du, pertsonaren sexua edozein izanik ere, eta, bizirauteko baliabideak galduz gero, bizi-maila egokia izateko eskubidea aldarrikatzen du, etxebizitza eta segurtasuna barnean hartuko dituen. Bestalde, xedatzen du pertsona orok ezkontidearen eskubide berberak izan behar dituela ezkonbizitzan, baita ezkontza desegiten bada ere. Horren ondorioz, estatuetakoko legediak eskubide berak aitortu behar dizkie ezkontideei ondasunen jabetzekin, erosketekin, kudeaketarekin eta administrazioarekin lotuta, bai eta horiez gozatzeko eta horiek erabiltzeko orduan ere.

Hori dela eta, premiazkoa da emakumeak gaitzea, maileguak jasotzea eta abilezia praktikoak eskuratzeko erraztuko duten erreformak abiaraztea, pobretutako emakumeak ekonomikoki ahalduzko, adierazteko aukera emateko, gizarte-zerbitzuak sendotzeko eta oinarrizko eskubideen kontzientzia handiagoa hartzeko. Halaber, ahalegina egin behar da emakumeek oinarrizko zerbitzuak, lurren kontrola nahiz jabetzarekin lotutako beste modu batzuk, hala nola



oinordetza, baliabide naturalak, teknologia berri egokiak eta finantza-zerbitzuak, eskuratzeko duten aukera bermatzeko.

Horixe jasotzen du 5. GIHak 5.a xedean: "Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza zerbitzuak, herentzia eta natura baliabideak eduki ahal izateko eskubide berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorritz"

- 8. Parte-hartzearen esparruko arrakalak.** — Azken urteetan, kuota bereziak aplikatzearen ondorioz nagusiki, kargu politikoak bete dituzten emakumeen kopuruak gora egin duen arren, emakumeen parte-hartzea parlamentu nazionaletan eta beste organo legegile batzuetan % 23,4koa izan zen 2017an munduan, 2000. urtean baino % 10 handiagoa soilik; beraz, ordezkatzeko parekidetik oso urrun gaude oraindik.

Egoera ez da hobea sektore pribatuan: mundu-mailan, datuak jaso dituzten 67 herrialdeetatik gehienetan eta 2009tik 2015era bitartean, goi-mailako eta erdi-mailako zuzendaritza-postuen heren bat baino gutxiago betetzen zituzten emakumeek. Eta, postu gorenei begiratzen badiegu, munduko 500 enpresa handien zuzendari nagusien % 4 baino ez dira emakumeak. Gainera, oro har, zenbat eta altuagoa izan ordezkartza-kargua, orduan eta baxuagoa da emakumeen parte-hartzea.

Bestalde, emakume agintariak diskriminatu egiten dituzte askotan, eta jokabide sexistak jasan behar izaten dituzte askok; horren ondorioz, batzuetan beren karguak utzi behar izaten dituzte.

Hala, bada, emakumeen ordezkartza ez da parekidea eta errespetuzkoa bizimodu politikoan, ekonomikoan eta publikoan.

Hala ere, ordezkartza hori egiazkoa denean, esperientzia oso positiboa izan ohi da: estatuburu, korporazioetako gerente, parlamentario, zerbitzari publiko edo gizarte zibileko erakundeetako buruzagi izan, emakumeek lidergoko kargu nabarmenak eskuratu dituzte mundu osoan, erabakiak hartzeko modua eta kudeaketen emaitzak aldatuz eta irauliz, zentzurik onenean. Zenbait ikerketaren aurreikuspenen arabera, erabaki-postu gorenetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea parekidea balitz, sekulako boom ekonomikoa gertatuko litzateke munduan.

Aurrerapenak motel doaz, ordea, eta konpromiso politiko handiagoak eta neurri eta kupo handizaleagoak beharrezkoak dira, emakumeak politikan duen parte-hartzea eta emakumearen ahduntzea areagotzeko. Izan ere, oso arau gutxi onartzen dira emakumeen parte-hartzea sustatzeko gobernu nazionaletan nahiz eskualdeko eta tokiko gobernuetan. Korporazio pribatuetan, zaila da gauzak apur bat gehiago behartzea, erakunde publikoetan egiten den bezala, baina ez da sentiberatasun handiagoa ikusten eremu horretan.

Emakumeen parte-hartze erabatekoa eta eraginkorra politikan helburu eta garapen iraunkorrerako tresna da aldi berean. Tokiko erakundeek garrantzi berezia dute, gobernuaren lehen maila delako, herritarrengandik hurbilen dagoena, eta administrazio publikoan lehen



pausoa delako eskualde-mailan nahiz nazio-mailan.

Zenbait gertaerek, hala nola edoskitzaroak eta erditzeak, zuzenean eragiten dute egoera horretan. Hala ere, amatasun-baimenaren ondoren emakume askok lanera itzuli nahi izaten dute, eta ez dute lortzen; modu berean, gizon askok seme-alaben hazkuntzan parte-hartze handiagoa izan nahiko lukete.

Gai horretan aurrera egiteko, enpresek gurasoen erabakiak babesteko politikak garatu beharko lituzkete, adibidez: ordutegi malgua, langileak irteteko edo sartzeko ordua aukeratzeko, edo telelana, egunean zenbait orduz etxetik lan egiteko. Telelana errazteko erreminta teknologikoak ezartzeko egindako inbertsioa berehala berreskuratuko du enpresak, ekoizpena handiagoa izango baita eta langileak motibatuagoak egongo baitira.

Nahitaezkoa da emakumeen lidergoa sustatzea. Generoen arteko alde errealak aitortu eta gainditu egin behar dira. Beste batzuetan, enpatia eta berariazko programak garatu beharko dira, emakumeen alderik onena ateratzeko. Garrantzitsua da baita ere prestakuntza-programak garatzea, emakumeengan beren ibilbideetan aurrera egiteko behar duten konfiantza bultzatzeko. Emakumeei ikusgarritasuna emateak lehentasuna izan behar du.

Berdintasuna lortzeko edozein ekimenen helburuak ez die abantaila bidegabea eman behar emakumeei, baina baldintza-berdintasunerako oztupoak kendu behar ditu. Emakume bakar batek ere ez luke nahi emakume izate hutsagatik sustatzea. Kontua ez da gizonei gerra aitortzea, baizik eta emakumeen talentua areagotzea, gizonen ondoan jartzeko aukera izan dezaten eta, elkarrekin, enpresen arrakasta susta dezaten.

5. GIHaren 5.5. xedeak honela dio: "Emakumeen parte hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan".

- 9. Arrakalak sexu- eta ugalketa-osasunean.** —Sexu- eta ugalketa-osasun ona ongizate fisikoari, mentalari eta sozialari dagokion egoera orokorra da, ugalketa-sistemarekin lotutako alderdi guztietan. Sexu-bizitza askiesgarria eta arriskurik gabea izateko gaitasuna hartzen du barnean, bai eta seme-alabak izateko edo ez izateko eta sexu-harremanak noiz eta zer maiztasunekin izateko erabakiak hartzeko erabateko askatasuna izatea ere.

Hala ere, ezkondata dauden edo bikotekidearekin bizi diren 15 urtetik 49 urtera arteko emakumeen erdiek (% 52) soilik erabakitzen dute adostutako sexu-harremanen inguruan eta antisorgailuak erabiltzearen edo osasun-zerbitzuetara jotzearen inguruan, 2012an 45 herrialdeei buruzko datuetan oinarrituta egindako estatistika baten arabera; herrialde horietatik, 43 garatzen ari diren eskualdeetan kokatuta daude.

Sexualki aktiboak diren nerabe pobreek dute sexu-transmisiozko infekzioak eta hiesa izateko



arrisku handiena, edota nahi gabeko haurdunaldi goiztiarra izateko eta abortu bat izateko arrisku handiena. Izan ere, ez dute nahikoa informaziorik osasunari buruz, oro har, eta ugalketa-osasunari buruz, bereziki.

Emakume bakoitzeko seme-alaben kopurua poliki-poliki murrizten ari den arren -emakumeek gero eta informazio gehiago dutelako-, informazio asko falta da oraindik ere kontrazepzio-metodoen erabilerari buruz, eta txertoen eta sendagaien hedapena handitu behar da. Gainera, abortu klandestinoak dira oraindik ere amen heriotzaren arrazoi nagusietako bat.

Sexu- eta ugalketa-osasuna ona izateko, pertsonak egiazko informazioa behar dute, eta kontrazepzio-metodo segurua, eraginkorra, merkea eta onargarria eskuratzeko aukera izan behar dute. Informazioa izan behar dute eta ahaldundu egin behar dute, beren burua sexu-transmisioko infekzioetatik babesteko. Eta ama izatea erabakitzen dutenean, haurdunaldi egokia, arriskurik gabeko erditzea eta haurtxo osasuntsua izaten lagunduko dieten zerbitzuak eskuratzeko aukera izan behar dute emakumeek.

Osasunaz eta sexu- eta ugalketa-eskubideez hitz egiten dugunean, pertsonak beren sexualitatea kontrolatzeko duten eskubideaz ari gara, sexu- eta ugalketa-osasuna barne; gai horien inguruan askatasunez eta arduraz erabakitze eskubideaz, inork hertsatu edo diskriminatu gabe edo indarkeriarik jasan gabe; eta ongizate fisikoa, mentala eta soziala izateaz -eta ez soilik gaixotasunik edo minik ez izatea- ugalketa-sistemarekin eta horren funtzio eta prozesuekin lotutako alderdi guztietan.

Sexu-eta ugalketa-eskubideak pertsonak beren sexualitateari eta sexua askatasunez praktikatzeari buruz erabakitze eskubidearekin lotuta daude. Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko premiei erantzuten ez zaienean, beren gorputzarekin, familiarekin eta etorkizunarekin lotutako funtsezko aukerak hautatzeko eskubidea kentzen zaie pertsonari, eta horrek domino-efektua sortzen du pertsona horien familien eta hurrengo belaunaldien ongizatean. Eta aintzat hartuta emakumeek erditzen dituztela haurrak eta, askotan, haur horiek zaintzeko eta elikatzeko ardurak dutela, eskubide horiek ukatzen zaizkienean, pobrezia-egoera eta desoreka areagotu egiten dira.

Gai hauei buruzko foro nagusiek lotura argia ezartzen dute ugalketa-osasunaren, giza eskubideen eta garapen iraunkorraren artean. Agian horregatik, arazo horiekin lotutako egoera larriagoa da garatzen ari diren herrialdeetan, ugalketa-osasunarekin lotutako arazoak baitira ugaltzeko adina duten emakumeen eta nesken osasun txarraren eta heriotzaren arrazoi nagusietakoak. Emakume pobreek, gazteenek batez ere, nahi gabeko haurdunaldi gehiago izaten dituzte, abortu arriskutsu gehiago, amen hilkortasun-tasa eta ezintasun handiagoa eta sexu-transmisiozko infekzio gehiago, hala nola hiesa, generoaren ondoriozko indarkeria eta horiei guztiei lotutako beste arazo batzuk.

Beharrezkoa da baita ere sexu-transmisiozko infekzioei aurrea hartzea eta arlo hori lantzea, mundu osoan pertsona asko eta asko hiltzen baitira arrazoi horregatik. Miliroi bat pertsonak baino gehiagok hartzen dute egunero sexu-transmisiozko infekzio bat (STI). Behar bezala diagnostikatzen eta tratatzen ez badira, STI batzuk, hiesa adibidez, hilgarriak izan daitezke.



Gainera, STlek arazoak sor ditzakete haurdunaldian, hala nola fetuaren heriotza, jaiotzetiko infekzioak, sepsiak eta jaio ondoko heriotza; bestalde, pelbisaren gaixotasun inflamatorioa edo umetoki-lepoko minbizia ere sor dezakete, bai eta antzutasuna ere.

Bestalde, ebidentziak erakusten du ugalketa-osasunak, pertsona baten bizitzako edozein etapatan, eragin sakona duela osasunean bizitzaren ondorengo faseetan. Horregatik, sexu-osasunaren arloko hezkuntza integralaz arduratuko diren ekimenak sustatu behar dira: familia-plangintza, erditu aurreko arreta eta arriskurik gabeko erditzea, STlei (GIB barne) aurrea hartzeko zerbitzuak eta ugalketa-osasunari eragiten dioten gaixotasunen (bularreko eta umetoki-lepoko minbizia barne) diagnostiko eta tratamendu goiztiarra errazten duten zerbitzuak.

Bizi-zikloan ugalketa-osasuna sustatzeko, sektore askotako zerbitzuak indartu behar dira, osasun-sistemetatik eta hezkuntzatik hasita garraiobideetara arte, funtsezkoak baitira osasun-arreta eskuratzen dela bermatzeko. Gainera, sexu- eta ugalketa-osasuna sustatzera bideratutako ekimen guztiak oinarrizko osasun-hornigaiak, hala nola antisorgailuak eta sendagaiak, eskuratzeko aukeraren mende daude.

5. GIHaren 5.6 xedeak honako hau bilatzen du: "Sexu eta ugalketa osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, bai eta ugalketa eskubideak ere".

**10. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabileran eta garapenean gehiago inplikatu diren emakumeak eta neskatokak.**—Planeta osoan, eta, bereziki, garatzen ari diren herrialdeetan, teknologiarako sarbidea eta teknologia horren erabilera ez da beti erraza izaten. Emakumeen eta nesken kasuan are nabarmenagoa da hori. Diru-sarrerak baxuak edo ertainak dituzten herrialdeetan, emakume batek gizon batek baino aukera gutxiago du (% 21) sakelako telefono bat izateko, eta gauza bera gertatzen da Internetarako sarbidearekin. Bestalde, aurrerapen zientifiko eta teknologikorako aukerak izugarriak diren arren, emakumeek eta neskek ez dute ia eremu horietan parte hartzen, bereziki gure eguneroko mundua aldatzen duten esparruetan erabakiak hartzeko orduan edo zerbait sortzeko orduan.

Zientzia eta teknologia egunerokotasunarekin lotuta daude. Ibilbideak aldatzeko boterea dute, gero eta eragin handiagoa baitute bizitzako alderdi guztietan, hala nola aukera ekonomikoetan eta beste ekoizpen-sektore batzuetan irtenbideak aplikatzerakoan.

Horregatik, enpresak sortzen, beraien osasuna eta beraien familiarena hobetzen, energia, ingurua eta baliabide naturalak behar bezala kudeatzen eta azpiegituren garapenean parte hartzen lagun diezaiekete emakumei zientziak eta teknologiak.

IKTek aukera bikainak eskaintzen dituzte emakumeen eta nesken hezkuntza eta ikasteko aukerak hobetzeko nahiz esperientziak partekatzeko, elkarrizketak eta debateak egiteko eta politikan parte hartzeko, hala, emakumeek eta neskek beren interesak eta eskubideak babes ditzaten eta, oro har, gizartea alda dezaten.



Aukera handiak iragarri dira arlo digitalean prestatutako langileentzat. Hala, etorkizun hurbilean, sektore formaleko enpleguen % 90ean IKTen arloko formazioa eskatuko dela aurreikusten da. Zientzia eta teknologia garapen iraunkorarekin, herritarrekin eta gaitze pertsonalarekin lotuta daude. Saharaz hegoaldeko Afrikan soilik, ikasketa teknikoak edo ingeniartzako ikasketak dituzten 2,5 milioi pertsona beharko dira energiaren eta nekazaritzaren arloetan, ur garbia eskuratzeko eta ur zikinen atalerako.

IKTek hazkundera eta berrikuntza sustatzen dituzte mundu osoan. Sektore gorakorra da enpleguari dagokionez, eta talentu berrien beharra du -2020. urtean, IKTetan adituak izango diren 2 milioi pertsona baino gehiago beharko direla kalkulatu da-. Hala ere, datu estatistikoek erakusten dutenez, zientziak, teknologia, ingeniartzak eta matematikak ikasten dituzten emakumeen kopurua murriztu egiten da Bigarren Hezkuntzatik unibertsitatera; laborategietan, irakaskuntzan, politiken formulazioan eta erabakiak hartzeko orduan nahiz unibertsitateko ikasketa teknikoetako ikasleen artean, emakumeen kopurua oso baxua da proportzionalki. Gizarteko jokabideek eta aurreiritziek emakumeen parte-hartzea oztopatzen dute, diziplina horiek gizonetzkoentzat direla jotzen baita.

Sektore zientifikoaren eta teknologikoaren barneko emakumeen parte hartzea eta lidergoa oso txikia da, nahiz eta, praktikan, emakumeek hartzen dituzten lehen tokiak energiaren erabileran, klima aldaketaren aurreko egokitzapenean eta ekoizpen ekonomikoan; gainera, ezagutza tradizional handiak dituzte.

Zientzia eta teknologiaren sektore formalean, berrikuntza-zentroetako langileen artean nahiz inbertsio-funtsak jasotzen dituztenen artean, % 10 baino ez dira emakumeak mundu osoan, eta akademia nazionalak % 5era ez dira iristen diziplina zientifikoetan eta teknologikoetan.

Emakumeek zientzian eta teknologian izan ohi duten elkarreragin praktikoaren eta sektore horietaz baliatzeko eta beren ezagutzak, ikuspegiak eta lidergoak balioestea lortzeko duten gaitasun formalaren arteko deskonexioa oso handia da. Askok dira lotura falta horren arrazoiak, besteak beste: teknologia, hezkuntza eta inbertsioa eskuratzeko aukerarik ez izatea, babes urriko lan-giroak, sinesmen kulturalak eta estereotipoak.

Neskak IKTen ezagutzan inplikatzeko mundu-mailako mugimendua babestuta, neska eta emakume gazteak ahalduntzea lortuko dugu, eta IKTekin lotutako ikasketak eta karrerak egiteko konfiantza eskuratzen lagunduko diegu. Gainera, neska eta emakume gazteak IKTen erabiltzaileak badira, IKTen sortzaile eta bultzatzaile ere bihurtu daitezke.

Emakumeak IKTekin lotutako unibertsitateko ikasketak egitera bultzatuz gero, sektore teknologiko dinamikoagoa sustatuko dugu, eta abantaila handiak eskainiko die horrek enpresei. Izan ere, langileen artean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bada, bezeroen isla zehatzagoa izango da, ekoizpena eta berrikuntza hobetuko dira eta emaitzak ere hobekak izango dira.



Hala, bada, mota guztietako ahaleginak areagotu behar dira, aldaketak azkartzeko eta emakume guztiengana iristeko. Emakumeek zientzia eta teknologiaren, eta, bereziki, IKTen abantailak eskuratzeko eta onurak lortzeko eta horietan eragiteko duten gaitasunak zuzenean eragingo du GIHak zehaztutako datarako lortzeko aukeran. Emakumeak XXI. mendeko iraultza horietatik kanpo gelditzen badira, ez dugu inoiz lortuko generoen arteko berdintasuna.

5. GIHaren 5.b xedeak honako hau lortu nahi du: "Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko".

### **EZINBESTEKO ERANSKINA: ZAIN DEZAGUN GURE HIZKUNTZA.**

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko ekintzetako bat hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea da, bai ahoz hitz egiterakoan eta bai idazterakoan.

Hizkuntza ez-sexista erabiltzea, eta, aurrerago, erabilera hori orokortzea oso tresna boteretsua da, eta gure eskura dago. Hizkuntzaren bitartez, errealitatea definitzen dugu eta inguratzen gaituen mundua ulertzen dugu. Ildo honetatik, euskara ez da genero hizkuntza kontsideratzen, izan ere, oro har, hitzak ez dira femenino/maskulino banaketaren arabera sailkatzen. Hori dela eta, pentsatu izan da euskara ez dela beste hizkuntza batzuk bezain sexista. Hala ere, hizkuntza eta generoan adituak direnek esaten dutenez, hizkuntzak ez dira sexistak edo ez sexistak, baizik eta erabilerak dira sexistak. Adibidez, "gizonak" erabiltzea gizateria osoa adierazteko ez da hizkuntzaren kasualitatea. Errealitatea ikusteko eta deskribatzeko modu zehatz bat adierazten du.

Hala, bada, gizarte parekide baten aldeko apustuak hizkuntza inklusiboa erabiltzea eskatzen du.

Aldaketa-prozesu bat da, eta, aldaketa guztiek bezala, oztopo asko aurkituko ditu bidean. Lehenik, emakumeak gogor eta disimulurik gabe bazterten zituzten giroetan erabili denez hizkuntza mende askoan, giro horretatik sortutako aurreiritziak irmo grabatuta gelditu dira hizkuntzan. Bigarrenik, dagoena normaldu egiten da eta baliagarritzat jotzen da, baina hizkuntza bizirik dago beti, dinamikoa da eta aldaketa soziokulturalen arabera egokitu behar du. Hirugarrenik, matxismoaren ondorioz. Hizkuntza botere-tresna bat da, eta botere-kuota hori lagatzeak erresistentzia asko sortzen ditu beti.

Hala, bada, arreta apur bat jarrita, lotura horietatik guztietatik askatzen joan behar dugu hizkuntza. Zeregin horretan arrakasta izateko arau nagusia arreta jartzea izan daiteke agian, beste garai bateko lotura linguistikoetatik aske sentitzea eta hitz egin edo idatzi aurretik apur bat pentsatzea.

Hizkuntza ez sexista berariaz erabiltzen dugunean, hizkuntzak zentzu zehatz batean aurrera egin dezan laguntzen ari gara. Mende askoan eratutako sorkuntza kulturala da hizkuntza, eta, hala, hainbat gizarte-testuinguru islatzen ditu, hizkuntza hori garatu den gizarteetan nagusi ziren munduaren ikuspegiak. Horregatik, gure gizarteak aldatzen doan heinean, hizkuntza ere aldatu egiten da.

Hizkuntza inklusiboa erabiltzeko gure ahaleginarekin, emakumea ikusgarri egiteaz gain eta justizia sustatzeaz gain, gure hizkuntzak zentzu jakin batean aurrera egin dezan laguntzen ari gara,





generoarekin lotutako gaietan balio parekideen arloan sentiberatasuna irabaziz. Hizkuntzak, gizarateak bezala, bilakatzen jarraituko du.

Ez da ahaztu behar, hala ere, hizkuntzaren erabilera inklusiboa ez dela soilik hizkuntzalaritzari dagokion zerbait, arlo sozial eta politikoari lotzen baitzaie nagusiki. Espainian derrigorrez bete behar da; halaxe ezartzen du emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Legearen 11. puntuak: "Administrazio-esparruan sexista ez den hizkera ezartzea, eta hizkera hori suspertzea harreman sozial, kultural eta artistiko guztietan".

Beraz, hizkuntza zaintzea ez da apeta edo moda hutsa, baizik eta emakumeen eta nesken diskriminazioa betikotzen duen diskurtsoa baztertzeko nahitaezko tresna bat.

Bestalde, proposamen hori onartuz, gure diskurtsoak xehetasunak adierazteko duen gaitasuna handitzen ari gara, eta oso garrantzitsua da hori hizkuntza batean.

Euskarari dagokionez, badaude adibide batzuk bere erabilera sexista islatzen dutenak. Lehen aipatutako gizona hitza gizaki hitzaren sinonimo bezala hartzen du Euskaltzaindiaren hiztegiak. Alegia, hitz horrek bi erabilera ditu, espezifikoa eta orokorra. Gainera, badaude talde edo lanbide batzuk erreferentzia bezala genero maskulinoa hartzen dutenak: legegizonak, itsasgizonak, etab. Bestalde, beste lan batzuk emakumeekin bakarrik lotzen dira, neskame adibidez.

Konnotazio negatiboak dituzten genero femeninoko hitzen artean, alua nabarmendu dezakegu, ergela, kaikua, etab. esan nahi duena eta iseka moduan erabiltzen dena.

Gizonki portatu esaerak ondo portatzea esan nahi du, emakumeki portatu esaerarik ez dagoen bitartean.

Bestalde, hitanoan, noka edo toka ari denean, hiztunak solaskidearen generoa kontuan hartzen du. Zer gertatzen da orduan, hartzailea plurala denean? Askotan forma maskulinoa hartzen da.

Horrela, hizkuntza sexistaren ezaugarri izango liratekeen hauek ekiditea gomendatzen da. Ildo beretik jarraituz, -sa atzikia ez erabiltzea gomendagarria da: alkatesa, aktorea, etab. Izan ere, euskaraz ez dago generoa markatzeko behar hori, aktorea eta alkatea, adibidez, ez direlako ez maskulinoak ezta ere femeninoak. Bestalde, jaun-andreak, andre-gizonak, neska-mutilak, anai-arrebak, etab. bezalako formulak erabiltzea inklusiboa da.

Hizkuntza inklusiboari eta hizkuntzaren genero-berdintasunari buruzko oinarrizko gogoetak dira aurrekoak. Bukaeran jasotako datuen iturrietan hainbat gida proposatzen dira, baina beste asko ere aurki daitezke.



### 5. GIHAREN XEDE ZEHATZAK: DEKALOGOA LABURPEN GISA

1. Emakume eta neska guztien kontrako diskriminazio modu guztiak desagerraraztea mundu osoan. (5.1) Politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea estatuen aldetik, generoen arteko berdintasuna eta emakume eta neskatoen ahalduntzea sustatzeko maila guztietan (5.c).
2. Neskatoen zein mutikoen eskolatzeko unibertsala sustatzea, sexuagatiko diskriminazio oro baztertuz, bereziki landa-inguruetan (4.1, 4.3 eta 4.6).
3. Eremu publikoan nahiz pribatuan emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria-modu guztiak desagerraraztea, trafikoa, sexu-salerosketa eta beste esplotazio-modu batzuk barne (5.2).
4. Haurren ezkontza goiztiarra eta behartua desagerraraztea (5.3).
5. Emakumeen genitalen mutilazioa guztiz desagerraraztea (5.3).
6. Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta balioestea, zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera (5.4).
7. Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza zerbitzuak, herentzia eta natura baliabideak eduki ahal izateko eskubide berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorriz (5.a).
8. Emakumeen parte hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan (5.5).
9. Sexu eta ugalketa osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, bai eta ugalketa eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Bejingeko Ekintza Plataformarekin eta aztertze konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera (5.6).
10. Teknologia instrumentalarenerabilerahobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiaarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko (5.b).

Eranskina: Zain dezagun gure hizkuntza..



### ESPAINIAREN EGOERA

‘GIHen 2017ko indizea’ izeneko txostenak GIHak munduko herrialde guztietan zer mailatan bete diren jasotzen du, eta 157 herrialde sailkatzen dituen zerrenda batean, 25. postuan ezarri zuen Espainia. Urtebetean bost toki gorago kokatu zen, 2016ko indizean 30. tokian baitzegoen. 2017. urtean, Espainiaren aurretik Kroazia, Eslovakia ed Malta zeuden; eta atzetik, berriz, Australia, Polonia edo Portugal. “Italia eta Australiaren aurretik gauden arren, Europako herrialdeekin konparatuta, tarteko tokian edo nahiko behean kokatuta gaude”, adierazi duen aditu batek, datuak ikusi ondoren.

2016. urtean, Espainiak GIH baten kasuan soilik lortu zuen gaitzitatea, genero-berdintasunarekin lotutako helburuan, hain zuzen (5. GIH). Baina 2017an, atzera egin zuen berriro ere, 5. GIH horren zenbait adierazlek ez zutelako behar bezalako garapenik izan. Zehazki, proposatutako bost xedeetatik hirutan aurrerapen txikia gertatu zen: 1) gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala lan eta erantzukizun berarentzat, lehenengoen alde (% 8,6); 2) emakumeen proportzioa parlamentu nazionaletan (% 39,1ekoa zen soilik); eta 3) 25 urtetik gorako emakumeen eskolatzeko-urteak, adin bereko gizonekin alderatuta % 96,2ra iristen zena. Hala ere, badirudi 2018an 5. GIHak onera egin duela, eta helburu hori 2030erako lortuko dela, parlamentu nazionaletako emakumeen proportzioak aurrera egin duelako.



### III. DATUEN ITURRIAK ETA EZAGUTZAK ZABALTZEKO INFORMAZIOA

- <https://www.un.org/sustainabledevelopment/>
- <http://www.proyde.org/index.php/inicio-menu/noticias-2/90-sensibilizacionincidencia-politica/1059-mundo-con-m-de-mujer>
- <http://www.proyde.org/index.php/servicios-menu/area-dedescargas/Formaci%C3%B3n-del-Voluntariado/Cuadernos-de-Cooperaci%C3%B3n-al-Desarrollo/> (Garapenerako Lankidetzako Koadernoak, 5. zk.: La mujer y el desarrollo)
- <http://www.unwomen.org/es/news/in-focus/women-and-the-sdgs/sdg-5-genderequality>
- [http://eoepsabi.educa.aragon.es/descargas/H\\_Recursos/h\\_1\\_Psicol\\_Educacion/h\\_1.2.Aspectos\\_sociales/2.4.Empoderamiento\\_y\\_liderazgo.pdf](http://eoepsabi.educa.aragon.es/descargas/H_Recursos/h_1_Psicol_Educacion/h_1.2.Aspectos_sociales/2.4.Empoderamiento_y_liderazgo.pdf)
- <https://es.unesco.org/creativity/sites/creativity/files/digitallibrary/cdis/Igualdad%20de%20genero.pdf>
- <https://rm.coe.int/1680590178>
- <http://igualdaddegenero.unam.mx/wp-content/uploads/2016/08/onu-mujeresigualdad-equidad.pdf>
- <http://www.inmujer.gob.es/areasTematicas/estudios/estudioslinea2015/docs/LaigualdaddegeneroWeb.pdf>
- <https://www.mimp.gob.pe/files/direcciones/dgignd/publicaciones/caminado-haciala-igualdad-de-genero.pdf>
- <http://www.odhag.org.gt/pdf/mod05Eqgenero.pdf>
- [http://www.aecid.es/centro-Documentacion/Documentos/Divulgaci%C3%B3n/Encuentro\\_ED\\_Carolina\\_Belalcazar\\_ponencia\\_4.pdf](http://www.aecid.es/centro-Documentacion/Documentos/Divulgaci%C3%B3n/Encuentro_ED_Carolina_Belalcazar_ponencia_4.pdf)
- <http://www.redalyc.org/pdf/3221/322127621004.pdf>
- <http://www.proyde.org/index.php/inicio-menu/noticias-2/90-sensibilizacionincidencia-politica/1464-feminizacion-de-la-pobreza>
- <http://datatopics.worldbank.org/sdgateatlas/SDG-05-gender-equality.html>



- <http://www.telam.com.ar/notas/201703/183139-las-mujeres-sufren-exclusion-yfalta-de-empoderamiento-a-nivel-mundial.html>
- <https://pyme.lavoztx.com/discriminacin-de-gnero-causas-efectos-y-soluciones-5175.html>
- <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs239/es/>
- <https://equilibrioyeleccion.wordpress.com/no-violencia/definicion-y-formas-deviolencia-contra-las-mujeres/>
- [https://www.unicef.org/spanish/protection/files/FactSheet\\_childmarriage\\_sp.pdf](https://www.unicef.org/spanish/protection/files/FactSheet_childmarriage_sp.pdf)
- <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs241/es/>
- <http://www.olacefs.com/wp-content/uploads/2017/11/Sin-igualdad-dege%CC%81nero-no-hay-Desarrollo-Sostenible-FINAL-24-10-17.pdf>
- [https://www.unfpa.org/sites/default/files/pub-pdf/unfpa\\_fp\\_recommended\\_sp.pdf](https://www.unfpa.org/sites/default/files/pub-pdf/unfpa_fp_recommended_sp.pdf)
- <http://www.unwomen.org/es/news/stories/2016/2/women-and-girls-imperative-toscience-and-technology-agenda>
- <https://www.deustoformacion.com/blog/recursos-humanos/10-medidas-parafomentar-igualdad-genero-empresas>
- [https://elpais.com/elpais/2018/03/06/planeta\\_futuro/1520353378\\_011889.html](https://elpais.com/elpais/2018/03/06/planeta_futuro/1520353378_011889.html)
- <http://www.pactomundial.org/2018/03/los-beneficios-economicos-de-la-igualdadde-genero/>
- <http://www.elmundo.es/sociedad/2017/10/05/59d506e846163f982d8b45c5.html>
- <http://www.eleconomista.es/ecoaula/noticias/8852088/01/18/La-igualdad-degenero-cada-vez-mas-lejos-de-ser-una-realidad.html>
- [http://www.mujeresenigualdad.com/lgualdad-de-genero-un-objetivo-de-desarrollosostenible-a-mejorar-en-Espana\\_es\\_1\\_3588.html](http://www.mujeresenigualdad.com/lgualdad-de-genero-un-objetivo-de-desarrollosostenible-a-mejorar-en-Espana_es_1_3588.html)
- <https://www.miarevista.es/ninos/articulo/7-claves-para-conseguir-la-igualdad-degenero-en-las-aulas-591476349624>



- [https://www.ehu.eus/documents/2007376/0/guia\\_mugagarik\\_gabe](https://www.ehu.eus/documents/2007376/0/guia_mugagarik_gabe)
- [http://www.upm.es/sfs/Rectorado/Gerencia/Igualdad/Lenguaje/MANUAL\\_DE\\_LENGUAJE\\_NO\\_SEXISTA\\_EN\\_LA\\_UPM.pdf](http://www.upm.es/sfs/Rectorado/Gerencia/Igualdad/Lenguaje/MANUAL_DE_LENGUAJE_NO_SEXISTA_EN_LA_UPM.pdf)
- <http://www.cultura.gob.cl/wp-content/uploads/2017/01/guia-lenguaje-inclusivogenero.pdf>
- <http://webs.ucm.es/info/especulo/numero16/sexis984.html>
- [http://www.themis.es/Guia\\_Igualdad\\_y\\_Lenguaje\\_No\\_Sexista.html](http://www.themis.es/Guia_Igualdad_y_Lenguaje_No_Sexista.html)
- [https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/Eventos/2016/12\\_Mensajes\\_UNETE\\_2016.pdf?file=fileadmin/Documentos/Eventos/2016/12\\_Mensajes\\_UNETE\\_2016](https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/Eventos/2016/12_Mensajes_UNETE_2016.pdf?file=fileadmin/Documentos/Eventos/2016/12_Mensajes_UNETE_2016)
- [https://www.stonewall.org.uk/sites/default/files/sdg-guide\\_2.pdf](https://www.stonewall.org.uk/sites/default/files/sdg-guide_2.pdf)
- <https://lgbtimontevideo2016.elis.biz/admin/files/lgbtimontevideo2016/upload/files/DDHH%20LGBTI%20GT%20II%20INCLUSION%20EN%20AGENDA%202030%20nota%20conceptual%20con%20recomendaciones%20en%20espa%C3%B1ol.pdf>

### Ikus-entzunezkoak.-

- [https://www.youtube.com/watch?v=vexpy\\_VrXhw](https://www.youtube.com/watch?v=vexpy_VrXhw)
- <https://www.youtube.com/watch?v=r4AMfqT4AsA>
- <https://www.youtube.com/watch?v=NpkYETvvy0o>
- <https://www.youtube.com/watch?v=tYeezuChG7Q>
- <https://www.youtube.com/watch?v=LHXtLmiUbE0>
- <https://www.youtube.com/watch?v=KZjQvMnzzSU>
- <https://www.youtube.com/watch?v=MRSErTmy2LQ>
- <https://www.youtube.com/watch?v=0NWWjKegbpA>
- <https://www.youtube.com/watch?v=OwJffvIPsjQ>

